Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaia
garbiker



# Bizkaiko Hondakinen Behatokiaren 2021. urteko txostena

# Indizea


**1. Sarrera** ........ 3

1.1. Bizkaiko datuak ........ 5

1.2. Biltzeko sistemak ........ 9

1.3. Bilketaren eboluzioa ........ 11

1.4. Hondakinen tratamendua ........ 16

1.5. Udal edukiontzietako bilketa ........ 22

1.5.1. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko handiena duten udalerriak ........ 25

1.5.2. Zatiki bakoitzean edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak biztanleko ........ 26

1.5.3 Azken urtean gaikako bilketako zatiki bakoitzean eboluzio handiena izandako udalerriak ........ 32

**2. Eskualde-unitateak** ........ 39

**3. Ondorioak** ........ 129

# 1. Sarrera

***Bizkaiko Hondakinen Behatokiaren 2021. urteko txostena*** den agiri honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2021. urteko hondakin-kudeaketa aztertzen da.

Agiri honen helburua Bizkaiko hondakin-kudeaketaren ikuspegi zehatz bat izatea da.

2021eko Hondakinen Behatokia sortzeko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeko irizpideak hartu dira erreferentziatzat. Halaber, aurreko urteen azterketa egin da (2012tik aurrera); hondakinen zatiki bakoitzaren bilketaren eboluzioaren joera aztertu da Bizkaia osoan zein lurraldea osatzen duten eskualde guztietan.

Agiri honetan, 2021. urteko hondakin-kopurua aztertu da, udal edukiontzietako bilketarena zein hiri-hondakinak biltzeko beste bide batzuena (adibidez, bilketa pribatuak, garbiguneak eta bilbogarbiak -Bizkaiko bilketa-guneak-, bideen eta hondartzen garbiketa, etab.), baita hondakin horien xedea eta tratamendua ere. Gainera, 2012. urtetik Bizkaian eta lurraldeko eskualde guztietan zatiki bakoitzak izandako eboluzioa jasotzen da.

## 1.1. Bizkaiko datuak

2021 susperraldiaren lehen urtea da, COVID-19aren pandemiaren urte txarrena, 2020. urtea, gainditu eta gero. Urte horretan COVID-19ak eragindako osasun-krisiagatik alarma-egoera deklaratu zenetik (463/2020 Errege Dekretua), pertsonen kontsumo-ohiturak eta hondakinen sorrera nabarmen aldatu dira. Txosten honetan, 2021. urteko datuak aztertzen dira. Agirian, pandemiaren osteko lehen urteko zenbatekoen ebaluazioa aurkezten da; egoera poliki-poliki zuzentzen joan da, biztanleria pandemiaren aurreko jarduera berreskuratzen joan ahala.

Hala ere, gaikako bilketa orokorraren ehunekoa ez da hazi aurreko urteetako joeraren arabera aurreikus zitekeen bezala. Dena dela, gaikako bilketaren zatiki bakoitzaren datuak aztertuz gero, aldakuntza oso positiboak aurkitzen ditugu 2020. urtearen eta azken urte honen artean.

Beraz, 2020. urtearen ostean biztanleriaren jarduerak izandako susperraldiak isla izan du baita hondakinen sorreran ere; 2021. urteko balioa 553,08 kg/biz/urte izan zen, pandemiaren aurreko 2019. urtean lortutakoaren antzekoa.



Hurrengo taulak alderatzen ditu 2020. eta 2021. urteetan lurraldean bildutako etxeko hondakinak (taulan, EH) eta merkataritzako hondakinak (taulan, MH) tonaka. Halaber, pisu osoarekiko zatiki bakoitzak duen ehunekoa adierazten da. Ikus daitekeen moduan, ehuneko handiena masako bilketako zatikiarena da.

Hurrengo taulak erakutsitako aldakuntzak 2021. eta 2020. urteen arteko aldeak jasotzen ditu ehuneko-puntuetan. Nabarmendu behar da, gainerakoak zatikian jaitsiera positibotzat jotzen dela (kolore berdea); gaikako bilketaren zatikietan izandako jaitsiera, ordea, negatibotzat jotzen da (kolore gorria), hurrengo taulan adierazten den bezala.

*1. taula. Hondakinen sorrera 2020-2021 (tonatan).*

| | | BIZKAIA 2020 | % pisuan | BIZKAIA 2021 | % pisuan | Pisu erlatiboaren aldakuntza bilketa osoarekiko |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **EH** | **Masako bilketa** | **285.975** | **%61,12** | **289.691** | **%58,53** | **-2,59 puntu** |
| | Biohondakina | 12.940 | %2,77 | 16.390 | %3,31 | **0,54 puntu** |
| | Papera eta kartoia | 22.632 | %4,84 | 22.162 | %4,48 | **-0,36 puntu** |
| | Beira | 14.401 | %3,08 | 15.558 | %3,14 | **0,06 puntu** |
| | Ontzi arinak | 20.371 | %4,35 | 20.455 | %4,13 | **-0,22 puntu** |
| | Plastikoak, ontziak ez direnak | 1.007 | %0,22 | 1.098 | %0,22 | **0,00 puntu** |
| | Metalak, ontziak ez direnak | 611 | %0,13 | 423 | %0,09 | **-0,04 puntu** |
| | Etxeko arriskutsuak | 541 | %0,12 | 489 | %0,10 | **-0,02 puntu** |
| | Denetarikoak | 14.312 | %3,06 | 15.523 | %3,14 | **0,08 puntu** |
| | Tamaina handikoak | 17.606 | %3,76 | 19.272 | %3,89 | **-0,13 puntu** |
| | Eraikuntza-hondakinak | 77.526 | %16,57 | 93.857 | %18,96 | **2,39 puntu** |
| | **Gaikako bilketa** | **181.947** | **%38,88** | **205.226** | **%41,47** | **2,59 puntu** |
| | **EH (etxeko hondakinak) GUZTIRA** | **467.922** | **%100** | **494.917** | **%100,00** | |
| **MH** | **Masako bilketa** | **52.730** | **%34,39** | **50.324** | **%33,99** | **-0,40 puntu** |
| | Biohondakina | 798 | %0,52 | 1.197 | %0,81 | **0,29 puntu** |
| | Papera eta kartoia | 61.780 | %40,29 | 62.333 | %42,10 | **1,81 puntu** |
| | Beira | 11.315 | %7,38 | 12.224 | %8,26 | **0,88 puntu** |
| | Ontzi arinak | 1.072 | %0,70 | 1.077 | %0,73 | **0,03 puntu** |
| | Plastikoak, ontziak ez direnak | 768 | %0,50 | 1.619 | %1,09 | **0,59 puntu** |
| | Metalak, ontziak ez direnak | 77 | %0,05 | 47 | %0,03 | **-0,02 puntu** |
| | Hondakin arriskutsuak | 13 | %0,01 | 20 | %0,01 | **0,00 puntu** |
| | Denetarikoak | 24.184 | %15,77 | 18.407 | %12,43 | **-3,34 puntu** |
| | Tamaina handikoak | 605 | %0,39 | 802 | %0,54 | **0,15 puntu** |
| | **Gaikako bilketa** | **100.612** | **%65,61** | **97.724** | **%66,01** | **0,40 puntu** |
| | **MH (merkataritzako hondakinak) GUZTIRA** | **153.342** | **%100** | **148.048** | **%100,00** | |
| **HH GUZTIRA** | **MASAKO BILKETA GUZTIRA** | **338.705** | **%54,52** | **340.015** | **%52,88** | **-1,64 puntu** |
| | Biohondakinak | 13.738 | %2,21 | 17.586 | %2,74 | **0,53 puntu** |
| | Papera-kartoia | 84.412 | %13,59 | 84.494 | %13,14 | **-0,45 puntu** |
| | Beira | 25.716 | %4,14 | 27.782 | %4,32 | **0,18 puntu** |
| | Ontzi arinak | 21.443 | %3,45 | 21.531 | %3,35 | **-0,10 puntu** |
| | Plastikoak, ontziak ez direnak | 1.775 | %0,29 | 2.717 | %0,42 | **0,13 puntu** |
| | Metalak, ontziak ez direnak | 688 | %0,11 | 470 | %0,07 | **-0,04 puntu** |
| | Hondakin arriskutsuak | 554 | %0,09 | 509 | %0,08 | **-0,01 puntu** |
| | Denetarikoak | 38.496 | %6,20 | 33.931 | %5,28 | **-0,92 puntu** |
| | Tamaina handikoak | 18.211 | %2,93 | 20.074 | %3,12 | **-0,19 puntu** |
| | Eraikuntza-hondakinak | 77.526 | %12,48 | 93.857 | %14,60 | **2,12 puntu** |
| | **GAIKAKO BILKETA GUZTIRA** | **282.559** | **%45,48** | **302.951** | **%47,12** | **1,64 puntu** |
| | **HIRI-HONDAKINAK GUZTIRA** | **621.264** | **% 100** | **638.441** | **% 100** | |
| | Biztanle-kopurua (EIN) | 1.159.443 | | 1.154.334 | | |
| | kg/biz/urte | 535.83 | | 557,00 | | |

Lehendabizi, nabarmendu behar da hondakinen sorreraren hazkundearen atzean gehien bat ekonomiaren susperraldia dagoela; hondakin-kopurua 621.264 t-tik 642.966 t-ra igaro da. Hondakin horien bilketaren banaketa aztertuz gero, argi ikusten da **gaikako bilketaren sistema nabarmen hobetu dela**. Horrela, 2021ean gaikako bilketaren ehunekoa hobetu da aurreko urtekoaren aldean, eta % 45,48 izatetik % 47,12 izatera igaro da. Honako zatiki hauek nabarmentzen dira: **beira, ontziak ez diren plastikoak, eraikuntza eta konponketetako hondakinak (aurrerantzean EKH) eta biohondakinak**, 2020. urtearekin alderatuta nabarmen hazi direnak.

Behatokiak 2012. urtetik biohondakinen bilketa bereizia zenbatu badu ere, 2017. urtera arte ez da udalerri bakoitzerako aipatutako bilketaren datu zehatzik aurkezten. Izan ere, momentu horretatik aurrera, lurralde historikoko udalerrietan bosgarren edukiontzia gehiago zabaldu zen.

Edozelan ere, 2021ean gaikako bilketako beste zatiki batzuen kopurua pixka bat murriztu da; hori da **papera-kartoiaren, ontzi arinen, ontziak ez diren metalen, hondakin arriskutsuen eta tamaina handiko hondakinen** kasua.

Masako bilketaren ehunekoa jaisten da 2020ko ehunekoarekin alderatuta. Beraz, banaketa eta birziklapenari dagokionez, gaur egun etxeetako ohiturak finkatzen ari dira.

## 1.2. Biltzeko sistemak

Jarraian, Bizkaian dauden biltzeko sistemak azalduko dira:

- ✓ **Gaikako bilketa:** Bizkaian, gaikako bilketa honako hauek osatzen dute, batez ere: zatiki desberdinetarako kalean bertan dauden udal edukiontzietan jasotakoak, garbigune eta bilbogarbi (bilketa-guneak) finko eta mugikorretan modu bereizian bildutakoak eta edukiontzi gabeko beste bilketa batzuk, hala nola merkataritza-sektoreko atez ateko bilketa pribatuak.
- ✓ **Masako bilketa:** Bizkaian, masako bilketa honako hauek osatzen dute, batez ere: kaleko gainerakoa zatikiaren udal edukiontziak, hainbat edukiontzitan edo garbigune eta bilbogarbietan nahastutako hondakinak, edukiontzietan jaso gabeko beste hondakin batzuk, hala nola bide eta hondartzen garbiketakoak, edo sortzaile handiek (aireportuak, kirol-portuak, merkatuak, merkataritza-guneak etab.) modu pribatuan bildutako merkataritzako hondakinak.

Aurretik adierazi dugunez, 2021ean gaikako bilketaren tasa handitu da aurreko urtekoarekin alderatuta, eta % 45,48 izatetik % 47,12 izatera igaro da. Gaikako bilketaren barruan, hurrengoak dira pisu handiena duten zatikiak: papera, beira, ontziak, denetarikoak, tamaina handikoak, EKH eta biohondakinak. Pisu txikiagoa dute ontziak ez diren plastikoek eta metalek edo hondakin arriskutsuek. Azpimarratu behar da, azken urteetan biohondakina zatikiak lurraldearen barruan hazkunde handia izan duela.




*1. irudia. Biltzeko sistema bakoitzaren ehunekoa (% pisuan)*

Adierazi behar da, legeria sortu berriak ez duela EKH zatikia zenbatuko hiri-hondakin gisa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen barruan txertatuta geratuko baita. Inguruabar horren ondorioz, etorkizuneko urteko txostenetan hiri-hondakinen datuen segida historikoak agian ez dira bat etorriko, legeria berriak zenbaketa-irizpide berri baten alde egiten baitu.

## 1.3. Bilketaren eboluzioa

Atal honetan, grafikoen bidez aurkezten da etxeko eta merkataritzako hondakinen bilketa guztiaren eboluzioa, baita horiek osatzen dituzten zatiki guztiena ere. Segida 2012an hasi zen, behatokiaren metodologia hondakinei buruzko 22/2011 Legera moldatu zen momentuan.

EUSTAT, EIN, ECOEMBES eta ECOVIDRIO erakundeek argitaratutako informazioan oinarrituta, konparazio-puntua lortzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoarentzat kg/biz/urte unitatean. Eboluzio-grafiko bakoitzean, kontsultatutako estatistika-erakunde bakoitzak argitaratutako azken datuak jasotzen dira. Aipatu behar da, kasu batzuetan txosten hau egindako momentuan izandako azken datuak 2018koak direla. Biohondakinen kasuan, estatuan edo EAEn Bizkaiko Hondakinen Behatokitik bildutako datuen antzekorik ez dagoenez, ezin daitezke datuak alderatu.




*2. irudia. Hiri-hondakinen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, EIN eta Eustat*




*3. irudia. Masako bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, EIN eta Eustat*




*4. irudia. Paper eta kartoiaren gaikako bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, Ecoembes eta Eustat*




*5. irudia. Ontzi arinen gaikako bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, Ecoembes eta Eustat*




*6. irudia. Beiraren gaikako bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, Eustat eta Ecovidrio*




*7. irudia. Tamaina handiko hondakinen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2012-2021. Iturriak: Behatokia, Eustat eta EIN*




*8. irudia. Biohondakinen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2017-2021. Iturriak: Behatokia eta Eustat*




*9. irudia. Denetarikoen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2017-2021. Iturriak: Behatokia eta Eustat*




*10. irudia. Hondakin arriskutsuen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2017-2021. Iturriak: Behatokia eta Eustat*

# 1.4. Hondakinen tratamendua

Atal honetan, 2021. urtean bildutako hondakinen askotariko fluxuek izandako tratamendua deskribatzen da. Xedeak honako hauek izan dira:

- Berrerabili eta birziklatzeko prestatzea.

- Konpost-egitea.

- Balorizazio energetikoa.

- Aurretratatutakoaren deuseztapena.

- Deuseztapen zuzena edo isurketa gordina.

Azpimarragarria da 2021ean sortutako 642.966 tona hondakinetatik gutxi gorabehera 300.000 berrerabili eta birziklatzera bideratu direla, hots, sortutako hondakin guztien % 45,41.

Bigarrenik, nabarmendu behar da 2021ean konpost-egiteko 17.586 tona biohondakin bildu zela.

Sortutako hondakinen % 32,1 balorizazio energetikora bideratu zen.

Zabortegira, berriz, sortutako hondakin guztiaren % 13 heldu zen (84.660 tona). Hondakin horrek honako azpizatiketa hau du:

- Aurretratamendua jasotako 72.931 t isuri. TMB lantegiko azpiproduktuak dira (ESB eta bioestabilizatua), geldotu eta beren bolumenagatik energetikoki balorizatu ezin izan direnak.
- Tratatu gabeko 11.729 t isuri, bide eta hondartzetako garbiketari dagozkionak, baita garbiguneen sareko deuseztapenaren zatikiari ere. Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duen 646/2020 Errege Dekretuak ezartzen du ezabatu aurretik hondakinak tratatu behar direla, betiere hori teknikoki egin badaiteke, eta, beraz, salbuespen hori jasoz.

Hortaz, 2021ean, edukiontzi bidez bildutako hondakinei dagokienez, isuri aurreko tratamendua egiteko helburua lortu da.




*11. irudia. Hondakinen xedea eta tratamendua (tonak). Bizkaia 2021. Iturria: Behatokia*




*12. irudia. Hondakinen xedea eta tratamendua (ehunekoa). Bizkaia 2021. Iturria: Behatokia*

Azken ekitaldietan Bizkaian bildutako hondakinen azken xedea kontsulta daiteke behatokiak argitaratutako serie historikoan. Erabilitako urteko erregistro-metodologiari esker, azken ekitaldietan Bizkaian bildutako hondakinek jasotako tratamendua jakin daiteke. Hurrengo taulan ikus daiteke 2015. urtetik gaur egun arte tratamenduek izandako eboluzioa.

*2. taulak. Hondakinen xede eta tratamenduaren eboluzioa (tonak). 2015-2021 urteak*

| HIRI-HONDAKINEN XEDEA (t) | | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Gaikako bilketa birziklatzeko** | | 220.886 | 240.988 | 274.226 | 283.430 | 288.229 | 268.821 | 285.364 |
| **Biohondakinen bilketa** | | | 6.613 | 8.139 | 10.729 | 12.993 | 13.737 | 17.586 |
| **TMB** | **Gaikako bereizketa** | 9.897 | 5.811 | 8.960 | 8.520 | 7.944 | 6.587 | 6.587 |
| | **Balorizazio energetikoa** | 66.886 | 44.127 | 54.245 | 38.124 | 63.626 | 57.344 | 57.344 |
| | **Deuseztapena** | 62.063 | 36.710 | 78.488 | 93.131 | 71.918 | 72.931 | 72.931 |
| | **Trat. zain dauden sarrerak** | | 1.589 | 1.605 | 1.965 | 1.100 | 1.100 | 1.100 |
| | **Prozesuko galerak** | 35.689 | 24.841 | 34.579 | 37.467 | 33.942 | 41.276 | 41.276 |
| **Balorizazio energetikoa** | | 161.408 | 170.838 | 156.893 | 161.637 | 153.598 | 145.170 | 149.047 |
| **Deuseztapena** | | 19.284 | 73.715 | 20.594 | 11.571 | 14.815 | 15.182 | 11.729 |
| **GUZTIRA** | | **576.113** | **605.232** | **637.729** | **646.574** | **648.165** | **621.264** | **642.966** |

| HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDUA (t) | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BIRZIKLATZEKO/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA** | 230.783 | 246.799 | 283.186 | 291.950 | 296.173 | 275.463 | 291.952 |
| **KONPOST-EGITEA** | 0 | 6.613 | 8.139 | 10.729 | 12.993 | 13.737 | 17.586 |
| **BALORIZAZIO ENERGETIKOA** | 228.294 | 214.965 | 211.138 | 199.761 | 217.224 | 212.510 | 206.391 |
| **AURRETRATATUTAKOAREN DEUSEZTAPENA** | 62.063 | 36.710 | 78.488 | 93.131 | 71.918 | 64.888 | 72.931 |
| **TRATATU GABEKO ISURIA** | 19.284 | 73.715 | 20.594 | 11.571 | 14.814 | 15.181 | 11.729 |
| **GUZTIRA** | **540.424** | **578.802** | **601.545** | **607.142** | **613.121** | **581.779** | **600.589** |
| **Tratamendurako zain dauden sarrerak** | **0** | **1.589** | **1.605** | **1.965** | **1.100** | **1.089** | **1.100** |
| **Prozesuko galerak** | **35.689** | **24.841** | **34.579** | **37.467** | **33.942** | **38.395** | **41.276** |
| | **576.113** | **605.232** | **637.729** | **646.574** | **648.164** | **621.263** | **642.966** |

Hurrengo irudian, azken urteetan Bizkaian hondakinen tratamenduak izandako eboluzioa erakusten da ehunekotan. Irudia sortzeko aldez aurretik kendu dira tratamenduaren hezetasun-galerak eta, ekitaldi bakoitzaren amaieran, horren zain dauden hondakinen sarrerak.

Hiri-hondakinen tratamenduaren eboluzioa




*13. irudia. Hiri-hondakinen xede eta tratamenduaren eboluzioa. Bizkaia 2011-2020. Iturria: Behatokia*

2020an pixka bat jaitsi eta gero, 2021. urtean berriz ere handitu da berrerabili eta birziklatzeko prestatutako hondakinen ehunekoa. Hala ere, deuseztatzera zuzendutako hondakinak ere pixka bat handitu dira (2020an % 13,8; 2021ean, berriz, % 14,1). Ondorioz, balorizazio energetikoko prozesuan tratatutako hondakinen ehunekoa jaitsi da. Horren guztiaren atzean Zabalgarbiko balorizazio energetikorako plantaren geldialdi teknikoa dago.
Garrantzitsua da nabarmentzea biohondakinak zatikiko konpost-egiteko prozesuaren goranzko eboluzioa. Gaikako bilketako zatiki horren bilketa udalerri ia guztietan handitu denez, prozesu hori ere handitu da, eta, aurretik adierazi dugun bezala, zatiki hori da hobetzeko aukera handienak dituena, udalerri batzuek autokonpostajea eta komunitateko konpostajea dutela ikusita.

Txostenaren aurrerapen honetan, ez da Jatorrian Kudeatutako Zatiki Organikoa kontuan hartzen; beraz, konpost-egiteko tratamenduaren benetako kopurua aurreko grafikoan adierazitakoa baino handiagoa izango da.

*3. taula. Hondakinen tratamenduaren eboluzioa (ehunekoa). 2015-2021 urteak*

| HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDUA (t) | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BIRZIKLATZEKO/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA** | % 43 | % 43 | % 47 | % 48 | % 48 | % 47 | % 49 |
| **KONPOST-EGITEA** | % 0 | % 1 | % 1 | % 2 | % 2 | % 2 | % 3 |
| **BALORIZAZIO ENERGETIKOA** | % 42 | % 37 | % 35 | % 33 | % 35 | % 37 | % 34 |
| **AURRETRATATUTAKOAREN DEUSEZTAPENA** | % 11 | % 6 | % 13 | % 15 | % 12 | % 11 | % 12 |
| **TRATATU GABEKO ISURIA** | % 4 | % 13 | % 3 | % 2 | % 2 | % 3 | % 2 |
| **GUZTIRA** | **% 100** | **% 100** | **% 100** | **% 100** | **% 100** | **% 100** | **% 100** |

Bizkaiko Hondakinen Behatokitik estatuko eta erkidegoko datuak alderatu dira EIN erakundeak hondakinen tratamenduari buruz argitaratutako azken datuak erabiliz (hurrengo taulan erakusten dira). 2019ko datuak erabili dira, urte horretan estatuko hondakinen tratamenduari buruzko azken datuak aurkeztu zirelako.

*4. taula. Estatuko hondakinen xede eta tratamenduari buruzko datuen alderaketa. Iturria: EIN*

| 2019 | **Bizkaia** | EAE | Estatua |
|---|---|---|---|
| BERRERABILPENA/BIRZIKLAPENA | % 48,31 | % 39,51 | % 19,67 |
| KONPOST-EGITEA | % 2,12 | % 3,66 | % 18,29 |
| BALORIZAZIO ENERGETIKOA | % 35,43 | % 27,23 | % 10,99 |
| DEUSEZTAPENA | % 14,15 | % 29,60 | % 51,05 |

2019. urtean, Bizkaiko Lurralde Historikoko deuseztapena % 14,15 izan zen. Jarraian, autonomia-erkidegoak sailkatzen dira, zabortegian bukatutako hondakinen ehunekoari dagokionez. Lehendabiziko autonomia-erkidegoa Balear Uharteak bada ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ehuneko hobeagoa du hondakinen deuseztapenari dagokionez.

*14. irudia. Hondakinen deuseztapenaren (zabortegia) ehunekoaren araberako sailkapena. Bizkaia beste autonomia-erkidegoen aurrean. Iturria: EIN*



# 1.5. Udal edukiontzietako bilketa

Atal honetan, Bizkaiko udalerrien **edukiontzi bidezko bilketari** buruzko informazioa kontsulta daiteke. Nabarmenduko ditugu 2021. urteko gaikako bilketako ratio onenak zatiki bakoitzarentzat eta azken urtean eboluzio onena izandako udalerriak.

Bizkaiko edukiontzi bidezko gaikako bilketaren datua, maila agregatuan, % 26,16 da 2021. urtean.

Azpimarratu behar da, hemen adierazitako datuak bakarrik kaleko edukiontzietako bilketarenak direla; ez dira beste bilketa batzuk kontuan hartzean, adibidez garbigune eta bilbogarbietakoak edo bilketa pribatuak.

Jarraian erakutsitako taulak jasotzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri bakoitzak zatiki bakoitzaren kasuan sortutako hondakinak. Kasu batzuetan, datuak mankomunitateko udalerrien artean uniformeki banandu dira (biztanleriaren arabera).<.

*5. taula. Udalerri bakoitzak zatiki bakoitzeko edukiontzi bidez bildutako hondakinak (kilogramoak). 2021. urtea*

| UDALERRIA | ESKUALDEA | MASAKO BILKETA | PAPERA-KARTOIA | BEIRA | TAMAINA HANDIKOAK | ONTZIAK | BERRERABILERA | BIOHONDAKINA | EH GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg |
| ABADIÑO | Durangaldea | 2.152.177 | 279.514 | 204.751 | 65.986 | 157.566 | 18.844 | 38.778 | 2.917.616 |
| ABANTO-ZIERBENA | Ezkerraldea | 2.816.180 | 204.630 | 184.514 | 106.912 | 156.918 | 34.148 | 44.480 | 3.547.782 |
| AJANGIZ | Busturialdea | 160.070 | 7.684 | 5.392 | 5.480 | 16.383 | 0 | 0 | 195.009 |
| ALONSOTEGI | Enkarterriak | 958.160 | 96.301 | 48.977 | 38.240 | 54.294 | 9.530 | 0 | 1.205.502 |
| AMOREBIETA-ETXANO | Durangaldea | 5.635.250 | 537.880 | 498.711 | 197.600 | 359.918 | 74.395 | 120.380 | 7.424.134 |
| AMOROTO | Lea-Artibai | 79.268 | 14.709 | 18.608 | 2.083 | 11.940 | 1.930 | 22.535 | 151.073 |
| ARAKALDO | Nerbioi-Ibaizabal | 40.685 | 4.229 | 2.168 | 1.428 | 3.988 | 2.307 | 375 | 55.180 |
| ARANTZAZU | Arratia | 125.847 | 19.288 | 10.869 | 4.694 | 10.972 | 1.362 | 2.895 | 175.926 |
| ARTZENTALES | Enkarterriak | 221.782 | 18.309 | 16.166 | 2.112 | 10.396 | 2.579 | 1.821 | 273.166 |
| AREATZA | Arratia | 400.880 | 61.440 | 28.842 | 14.953 | 33.534 | 4.710 | 9.221 | 553.580 |
| ARRANKUDIAGA | Nerbioi-Ibaizabal | 308.779 | 26.140 | 33.257 | 7.000 | 25.764 | 4.331 | 9.938 | 415.209 |
| ARRATZU | Busturialdea | 141.216 | 8.424 | 14.320 | 6.325 | 20.617 | 2.674 | 1.116 | 194.692 |
| ARRIETA | Mungialdea | 174.123 | 13.085 | 3.625 | 14.957 | 15.340 | 2.440 | 665 | 224.235 |
| ARRIGORRIAGA | Nerbioi-Ibaizabal | 2.883.650 | 320.874 | 227.436 | 148.292 | 218.608 | 51.243 | 128.121 | 3.978.224 |
| ARTEA | Arratia | 234.031 | 35.868 | 17.659 | 8.729 | 21.276 | 2.823 | 5.383 | 325.769 |
| ATXONDO | Durangaldea | 385.912 | 50.120 | 68.001 | 11.832 | 29.688 | 4.572 | 6.953 | 557.078 |
| AULESTI | Lea-Artibai | 123.688 | 22.952 | 24.433 | 3.251 | 11.727 | 2.526 | 35.163 | 223.740 |
| BAKIO | Mungialdea | 1.237.800 | 178.876 | 179.768 | 25.860 | 90.846 | 19.105 | 0 | 1.732.255 |
| BALMASEDA | Enkarterriak | 2.450.078 | 202.264 | 152.835 | 94.000 | 96.584 | 21.535 | 20.120 | 3.037.416 |
| BARAKALDO | Ezkerraldea | 26.995.460 | 1.930.120 | 2.125.028 | 1.067.241 | 1.413.223 | 310.441 | 483.160 | 34.324.672 |
| BARRIKA | Uribe Kosta | 617.820 | 50.449 | 93.667 | 18.600 | 38.441 | 12.631 | 16.740 | 848.348 |
| BASAURI | Nerbioi-Ibaizabal | 11.697.240 | 1.286.460 | 800.891 | 578.520 | 666.343 | 116.169 | 370.330 | 15.515.953 |
| BEDIA | Arratia | 339.376 | 52.014 | 27.600 | 12.659 | 23.919 | 4.297 | 7.806 | 467.670 |
| BERANGO | Uribe Kosta | 2.244.360 | 230.728 | 173.406 | 24.680 | 123.148 | 33.123 | 44.340 | 2.873.786 |
| BERMEO | Busturialdea | 4.753.380 | 381.353 | 472.798 | 224.380 | 346.134 | 39.745 | 173.580 | 6.391.370 |
| BERRIATUA | Lea-Artibai | 339.365 | 81.217 | 32.078 | 2.847 | 31.573 | 3.157 | 47.025 | 537.262 |
| BERRIZ | Durangaldea | 1.305.350 | 71.952 | 110.661 | 36.680 | 110.932 | 9.940 | 0 | 1.645.515 |
| BILBO | Bilbo | 87.754.140 | 10.880.470 | 7.862.708 | 3.713.940 | 6.358.820 | 1.292.578 | 3.563.340 | 121.425.996 |
| BUSTURIA | Busturialdea | 595.972 | 37.075 | 42.851 | 23.610 | 37.909 | 9.220 | 14.123 | 760.760 |
| DERIO | Txorierri | 2.089.285 | 269.193 | 139.545 | 44.452 | 148.483 | 27.830 | 25.138 | 2.743.926 |
| DIMA | Arratia | 464.277 | 71.156 | 43.619 | 17.318 | 35.054 | 3.076 | 10.679 | 645.179 |
| DURANGO | Durangaldea | 6.497.752 | 821.056 | 839.190 | 222.480 | 563.924 | 101.605 | 325.280 | 9.371.287 |
| EA | Busturialdea | 245.140 | 35.515 | 55.175 | 14.330 | 26.701 | 2.165 | 0 | 379.026 |
| ELANTXOBE | Busturialdea | 114.572 | 6.835 | 15.770 | 5.132 | 4.602 | 1.190 | 906 | 149.005 |
| ELORRIO | Durangaldea | 2.085.787 | 270.891 | 199.918 | 63.951 | 194.092 | 36.940 | 37.582 | 2.889.160 |
| ERANDIO | Txorierri | 8.138.760 | 524.320 | 449.272 | 371.140 | 389.369 | 83.955 | 53.500 | 10.010.316 |
| EREÑO | Busturialdea | 87.594 | 5.225 | 14.456 | 3.923 | 8.092 | 1.271 | 0 | 120.562 |
| ERMUA | Durangaldea | 3.156.745 | 547.203 | 371.923 | 81.144 | 287.737 | 53.799 | 781.250 | 5.279.801 |
| ERRIGOITI | Busturialdea | 122.220 | 8.109 | 12.678 | 3.648 | 7.771 | 1.255 | 0 | 155.681 |
| ETXEBARRI, ELIZATEA | Nerbioi-Ibaizabal | 2.743.077 | 308.293 | 188.109 | 126.308 | 182.482 | 38.706 | 78.461 | 3.665.436 |
| ETXEBARRIA | Lea-Artibai | 231.014 | 35.506 | 36.184 | 1.825 | 35.412 | 2.208 | 26.656 | 368.806 |
| FORUA | Busturialdea | 320.908 | 12.361 | 22.370 | 13.840 | 17.152 | 2.380 | 4.707 | 393.718 |
| FRUIZ | Mungialdea | 165.947 | 12.470 | 8.013 | 14.255 | 15.643 | 3.644 | 634 | 220.605 |
| GALDAKAO | Nerbioi-Ibaizabal | 7.767.320 | 722.917 | 747.412 | 414.170 | 517.957 | 122.823 | 228.120 | 10.520.719 |
| GALDAMES | Enkarterriak | 265.885 | 21.950 | 20.748 | 2.449 | 17.295 | 2.600 | 2.183 | 333.111 |
| GAMIZ-FIKA | Mungialdea | 418.805 | 31.471 | 30.294 | 35.975 | 27.821 | 7.259 | 1.599 | 553.224 |
| GARAI | Durangaldea | 92.946 | 12.071 | 15.791 | 2.850 | 7.795 | 2.630 | 1.675 | 135.758 |
| GATIKA | Mungialdea | 506.926 | 38.093 | 47.194 | 43.545 | 34.576 | 7.394 | 1.935 | 679.663 |
| GAUTEGIZ-ARTEAGA | Busturialdea | 284.431 | 16.967 | 36.466 | 12.740 | 31.635 | 1.798 | 2.248 | 386.284 |
| GERNIKA-LUMO | Busturialdea | 4.413.925 | 582.380 | 505.799 | 220.400 | 326.396 | 68.760 | 196.850 | 6.314.510 |
| GETXO | Uribe Kosta | 19.043.440 | 2.844.766 | 2.060.419 | 571.040 | 1.759.060 | 305.982 | 397.520 | 26.982.227 |
| GIZABURUAGA | Lea-Artibai | 38.294 | 7.106 | 8.533 | 1.006 | 5.446 | 2.245 | 10.886 | 73.517 |
| GORDEXOLA | Enkarterriak | 538.433 | 44.450 | 52.711 | 5.012 | 36.531 | 5.015 | 4.422 | 686.574 |
| GORLIZ | Uribe Kosta | 2.403.980 | 194.730 | 251.542 | 80.000 | 149.274 | 31.841 | 35.980 | 3.147.347 |
| GUEÑES | Enkarterriak | 2.137.234 | 176.438 | 147.547 | 19.487 | 95.348 | 19.244 | 17.551 | 2.612.849 |
| IBARRANGELU | Busturialdea | 223.148 | 13.312 | 58.786 | 9.995 | 20.999 | 1.922 | 1.764 | 329.926 |
| IGORRE | Arratia | 1.360.659 | 208.538 | 105.237 | 50.753 | 102.212 | 15.921 | 31.297 | 1.874.615 |
| ISPASTER | Lea-Artibai | 182.264 | 25.836 | 33.247 | 1.160 | 25.922 | 2.500 | 0 | 270.929 |
| IURRETA | Durangaldea | 1.044.165 | 135.611 | 108.422 | 32.014 | 81.564 | 11.913 | 18.814 | 1.432.502 |
| IZURTZA | Durangaldea | 67.803 | 8.806 | 8.915 | 2.079 | 7.805 | 3.790 | 1.222 | 100.419 |
| KARRANTZA HARANA | Enkarterriak | 889.351 | 73.420 | 69.272 | 8.026 | 42.772 | 4.857 | 7.303 | 1.095.001 |
| KORTEZUBI | Busturialdea | 146.212 | 8.722 | 26.214 | 6.549 | 16.364 | 1.226 | 1.156 | 206.442 |
| LANESTOSA | Enkarterriak | 80.273 | 6.627 | 4.269 | 759 | 5.511 | 1.287 | 659 | 99.385 |
| LARRABETZU | Txorierri | 615.590 | 58.933 | 103.440 | 13.137 | 55.028 | 8.622 | 13.641 | 868.391 |

| UDALERRIA | ESKUALDEA | MASAKO BILKETA | PAPERA-KARTOIA | BEIRA | TAMAINA HANDIKOAK | ONTZIAK | BERRERABILERA | BIOHONDAKINA | EH GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg | Kg |
| LAUKIZ | Mungialdea | 374.592 | 28.149 | 34.852 | 32.177 | 19.874 | 6.700 | 1.430 | 497.775 |
| LEIOA | Uribe Kosta | 8.484.480 | 1.088.750 | 792.655 | 274.760 | 625.336 | 130.647 | 242.720 | 11.639.348 |
| LEKEITIO | Lea-Artibai | 1.744.782 | 367.495 | 368.871 | 16.801 | 221.905 | 44.595 | 320.717 | 3.085.166 |
| LEMOA | Arratia | 1.100.449 | 168.658 | 56.419 | 41.047 | 71.001 | 8.984 | 25.311 | 1.471.869 |
| LEMOIZ | Uribe Kosta | 462.640 | 41.753 | 66.032 | 3.180 | 33.498 | 12.569 | 4.300 | 623.972 |
| LEZAMA | Txorierri | 637.763 | 47.466 | 72.615 | 13.848 | 50.252 | 13.238 | 16.281 | 851.463 |
| LOIU | Txorierri | 1.130.773 | 161.202 | 59.006 | 23.172 | 69.810 | 14.885 | 16.393 | 1.475.241 |
| MALLABIA | Durangaldea | 609.242 | 104.830 | 52.396 | 2.204 | 27.979 | 2.899 | 77.479 | 877.029 |
| MAÑARIA | Durangaldea | 147.189 | 19.116 | 14.052 | 4.513 | 10.978 | 2.931 | 2.652 | 201.431 |
| MARKINA-XEMEIN | Lea-Artibai | 1.044.371 | 247.993 | 146.630 | 11.719 | 131.887 | 27.497 | 166.059 | 1.776.157 |
| MARURI-JATABE | Mungialdea | 300.401 | 22.574 | 24.735 | 25.804 | 26.672 | 7.413 | 1.147 | 408.746 |
| MENDATA | Busturialdea | 126.229 | 7.530 | 13.280 | 5.654 | 22.765 | 1.570 | 998 | 178.025 |
| MENDEXA | Lea-Artibai | 80.800 | 25.507 | 39.996 | 2.124 | 13.477 | 2.165 | 22.970 | 187.038 |
| MEÑAKA | Mungialdea | 228.026 | 17.135 | 11.736 | 19.587 | 13.544 | 4.088 | 871 | 294.987 |
| MORGA | Busturialdea | 159.730 | 10.655 | 11.588 | 3.990 | 6.923 | 925 | 0 | 193.811 |
| MUNDAKA | Busturialdea | 835.076 | 45.087 | 94.300 | 21.692 | 38.475 | 10.010 | 8.471 | 1.053.112 |
| MUNGIA | Mungialdea | 4.565.160 | 496.776 | 393.158 | 134.940 | 432.204 | 75.425 | 57.200 | 6.154.863 |
| MUNITIBAR-ARBATZEGI | Lea-Artibai | 92.671 | 17.196 | 17.282 | 2.436 | 9.242 | 2.119 | 26.345 | 167.291 |
| MURUETA | Busturialdea | 147.840 | 6.686 | 26.108 | 4.470 | 7.731 | 1.030 | 0 | 193.865 |
| MUSKIZ | Ezkerraldea | 2.736.620 | 173.631 | 125.483 | 118.800 | 96.806 | 20.545 | 0 | 3.271.885 |
| MUXIKA | Busturialdea | 491.259 | 29.306 | 52.756 | 22.003 | 45.381 | 2.549 | 3.883 | 647.137 |
| NABARNIZ | Busturialdea | 68.410 | 6.090 | 8.460 | 160 | 10.941 | 1.300 | 0 | 95.361 |
| ONDARROA | Lea-Artibai | 1.578.415 | 349.030 | 306.066 | 19.238 | 196.877 | 46.000 | 405.839 | 2.901.466 |
| URDUÑA | Nerbioi-Ibaizabal | 1.211.252 | 110.984 | 114.147 | 29.419 | 94.088 | 12.546 | 24.849 | 1.597.285 |
| OROZKO | Nerbioi-Ibaizabal | 651.103 | 70.254 | 82.997 | 19.260 | 79.122 | 9.009 | 14.059 | 925.804 |
| ORTUELLA | Ezkerraldea | 2.429.480 | 107.392 | 151.122 | 95.552 | 158.879 | 32.636 | 54.239 | 3.029.300 |
| OTXANDIO | Durangaldea | 413.043 | 45.056 | 44.652 | 19.213 | 36.767 | 4.720 | 0 | 563.451 |
| PLENTZIA | Uribe Kosta | 1.508.400 | 143.956 | 130.353 | 3.540 | 76.257 | 22.892 | 18.560 | 1.903.958 |
| PORTUGALETE | Ezkerraldea | 11.087.310 | 1.141.890 | 1.155.406 | 484.742 | 808.815 | 186.327 | 293.140 | 15.157.630 |
| SANTURTZI | Ezkerraldea | 11.699.150 | 932.290 | 855.160 | 491.760 | 702.157 | 148.797 | 298.318 | 15.127.632 |
| SESTAO | Ezkerraldea | 6.715.640 | 720.260 | 563.098 | 304.163 | 365.640 | 83.995 | 363.640 | 9.116.435 |
| SONDIKA | Txorierri | 1.236.727 | 132.213 | 104.691 | 26.713 | 87.341 | 18.395 | 25.362 | 1.631.442 |
| SOPELA | Uribe Kosta | 3.654.720 | 458.676 | 353.362 | 50.480 | 299.771 | 66.983 | 178.780 | 5.062.771 |
| SOPUERTA | Enkarterriak | 815.423 | 67.317 | 71.431 | 7.674 | 40.385 | 8.107 | 6.696 | 1.017.033 |
| SUKARRIETA | Busturialdea | 155.624 | 14.861 | 25.319 | 3.828 | 8.164 | 3.610 | 1.579 | 212.985 |
| TURTZIOZ | Enkarterriak | 161.498 | 13.332 | 23.317 | 1.460 | 8.196 | 2.017 | 1.326 | 211.147 |
| UBIDE | Arratia | 51.096 | 7.831 | 8.533 | 1.906 | 4.419 | 613 | 1.175 | 75.573 |
| UGAO-MIRABALLES | Nerbioi-Ibaizabal | 1.089.175 | 108.738 | 100.583 | 67.219 | 70.917 | 20.467 | 45.788 | 1.502.886 |
| URDULIZ | Uribe Kosta | 1.798.520 | 162.184 | 123.123 | 23.220 | 96.391 | 28.435 | 53.640 | 2.285.513 |
| TRAPAGARAN | Ezkerraldea | 3.638.440 | 254.940 | 266.287 | 129.791 | 207.291 | 38.253 | 77.103 | 4.612.105 |
| ZALDIBAR | Durangaldea | 858.272 | 111.468 | 64.168 | 26.315 | 68.988 | 7.005 | 15.464 | 1.151.679 |
| ZALLA | Enkarterriak | 2.681.061 | 221.333 | 180.425 | 24.481 | 141.644 | 23.594 | 22.017 | 3.294.556 |
| ZAMUDIO | Txorierri | 2.688.611 | 301.272 | 91.929 | 53.378 | 86.988 | 17.740 | 126.826 | 3.366.744 |
| ZARATAMO | Nerbioi-Ibaizabal | 737.981 | 43.532 | 27.770 | 24.490 | 20.651 | 9.760 | 4.668 | 868.852 |
| ZEANURI | Arratia | 393.626 | 60.328 | 33.576 | 14.682 | 28.909 | 4.264 | 9.054 | 544.439 |
| ZEBERIO | Nerbioi-Ibaizabal | 301.318 | 28.757 | 25.807 | 20.750 | 18.730 | 5.659 | 2.061 | 403.082 |
| ZIERBENA | Ezkerraldea | 1.042.580 | 72.016 | 60.699 | 14.160 | 37.727 | 3.750 | 0 | 1.230.932 |
| ZIORTZA-BOLIBAR | Lea-Artibai | 73.644 | 15.521 | 14.750 | 950 | 18.943 | 1.338 | 2.882 | 128.028 |
| **BIZKAIA GUZTIRA** | | **310.396.812** | **34.094.719** | **27.781.680** | **11.723.245** | **21.531.363** | **4.283.004** | **10.532.298** | **420.343.121** |

### 1.5.1. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko handiena duten udalerriak

Atal honetan, 2021. urtean hondakinen gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak jasotzen dira.



*15. Irudia. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak. 2021. urtea*

Jarraian erakutsitako taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Mendexa dagoela, % 56,80ko gaikako bilketa-tasarekin. Kopuru horrek aise gainditzen du 2021ean Bizkaiko Lurralde Historikoan izandako bataz bestekoa, agiri honetan aurretik ikusi dugun bezala, % 26,16 dena. Ikus daitekeen bezala, zerrenda horretan dauden udalerriak Lea-Artibaikoak dira; eskualde hori lehena izan zen haragia eta arraina edukiontzi marroian sartzen.

*6. taula. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak: 2021. urtea*

| Udalerria | Ehunekoa |
|---|---|
| Mendexa | %56,80 |
| Gizaburuaga | %47,91 |
| Amoroto | %47,53 |
| Ondarroa | %45,60 |
| Aulesti | %44,72 |
| Munitibar | %44,60 |
| Lekeitio | %43,45 |
| Ziortza-Bolibar | %42,48 |
| Markina-Xemein | %41,20 |
| Etxebarria | %37,36 |

## 1.5.2. Zatiki bakoitzean edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak biztanleko

Atal honetan, 2021. urtean biztanleko zatiki bakoitzaren kasuan edukiontzi bidezko gaikako bilketako kopuru onenak izandako udalerriak jasotzen dira.

### 1.5.2.1 Ontziak



Ontzi arinak zatikiaren kasuan, jarraian erakutsitako taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Mendata dagoela bilketa-tasa honekin: 60,07 kg/biz/urte. Zerrenda honetako udalerri guztiek biztanle gutxi dituzte. Beraz, biztanle-ontzi ratioak sentikortasun handiagoa izan dezake sortzaile handien presentziaren aurrean (adibidez, ostalaritza).

*7. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak ontzi arinen kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Mendata | 60,07 |
| Arratzu | 48,63 |
| Ziortza-Bolibar | 46,09 |
| Etxebarria | 44,83 |
| Nabarniz | 40,98 |
| Kortezubi | 37,28 |
| Gautegiz de Arteaga | 37,04 |
| Ispaster | 34,38 |
| Ajangiz | 33,92 |
| Bakio | 32,74 |

### 1.5.2.2 Papera eta kartoia



Papera eta kartoiaren zatikiaren kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Zamudio dagoela bilketa-tasa honekin: 91,94 kg/biz/urte. Tasa hori gainerako udalerrietakoa baino handiago da.

*8. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak papera eta kartoiaren kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Zamudio | 91,94 |
| Loiu | 68,22 |
| Berriatua | 65,92 |
| Bakio | 64,46 |
| Mendexa | 60,44 |
| Lekeitio | 50,54 |
| Markina-Xemein | 48,89 |
| Arantzazu | 48,34 |
| Bedia | 48,34 |
| Areatza | 48,34 |

Aipatu behar da, tasa bera duten udalerrien kasuan papera eta kartoiaren bilketaren banaketa homogeneoa egin dela beren eskualdearen barruan duten biztanleria kontuan hartuta, udalerri bakoitzaren pisaketaren daturik ez daukagulako.

### 1.5.2.3 Beira



Beira zatikiaren kasuan, jarraian erakutsitako taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Mendexa dagoela bilketa-tasa honekin: 94,78 kg/biz/urte. Ontzien kasuan gertatu bezala, zerrenda honetako udalerri guztiek biztanle gutxi dituzte. Beraz, biztanle-beira ratioak sentikortasun handiagoa izan dezake sortzaile handien presentziaren aurrean (adibidez, ostalaritza).

*9. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak beiraren kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Mendexa | 94,78 |
| Ibarrangelu | 87,74 |
| Murueta | 80,83 |
| Sukarrieta | 72,97 |
| Ea | 67,29 |
| Bakio | 64,78 |
| Barrika | 60,27 |
| Kortezubi | 59,71 |
| Ereño | 54,97 |
| Ubide | 52,67 |

### 1.5.2.4 Organikoa/Biohondakinak



Biohondakinak zatikiaren kasuan, jarraian erakutsitako taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Amoroto dagoela bilketa-tasa honekin: 54,43 kg/biz/urte. Udalerri horren ondoan, zerrendan Lea-Artibaiko udalerri gehienak daude, eskualde hori lehena izan zelako haragia eta arraina edukiontzi marroian sartzen.

*10. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak biohondakinen kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Amoroto | 54,43 |
| Aulesti | 54,43 |
| Munitibar | 54,43 |
| Mendexa | 54,43 |
| Gizaburuaga | 54,43 |
| Ondarroa | 48,74 |
| Lekeitio | 44,11 |
| Zamudio | 38,7 |
| Berriatua | 38,17 |
| Etxebarria | 33,74 |
| Amoroto | 54,43 |

Aipatu behar da, tasa bera duten udalerrien kasuan biohondakinen bilketaren banaketa homogeneoa egin dela beren eskualdearen barruan duten biztanleria kontuan hartuta, udalerri bakoitzaren pisaketaren daturik ez daukagulako.

### 1.5.2.5 Tamaina handikoak



Tamaina handikoak zatikiaren kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrenda 26,01 kg/biz/urte bilketa tasarekin: Fruiz, Gatika, Gamiz-Fika, Arrieta, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka. Tasa hori gainerako udalerriena baino nabarmen handiagoa da.

*11. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak tamaina handiko hondakinen kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Fruiz | 26,01 |
| Gatika | 26,01 |
| Gamiz-Fika | 26,01 |
| Arrieta | 26,01 |
| Laukiz | 26,01 |
| Maruri-Jatabe | 26,01 |
| Meñaka | 26,01 |
| Zeberio | 19,07 |
| Ea | 17,48 |
| Ugao-Miraballes | 16,34 |

Aipatu behar da, tasa bera duten udalerrien kasuan tamaina handikoen bilketaren banaketa homogeneoa egin dela beren eskualdearen barruan duten biztanleria kontuan hartuta, udalerri bakoitzaren pisaketaren daturik ez daukagulako.

### 1.5.2.6 Berrerabilera



Berrerabiltzeko hondakinak zatikiaren kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Izurtza dagoela bilketa-tasa honekin: 15,79 kg/biz/urte.

*12. taula. Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak berrerabiltzeko hondakinen kasuan: 2021. urtea*

| Udalerria | kg/biz/urte |
|---|---|
| Izurtza | 15,79 |
| Arakaldo | 14,42 |
| Gizaburuaga | 11,23 |
| Sukarrieta | 10,4 |
| Lemoiz | 9,69 |
| Barrika | 8,13 |
| Garay | 7,99 |
| Maruri-jatabe | 7,47 |
| Bakio | 6,88 |
| Fruiz | 6,65 |

## 1.5.3 Azken urtean gaikako bilketako zatiki bakoitzean eboluzio handiena izandako udalerriak

Atal honetan, edukiontzi bidezko gaikako bilketako zatiki bakoitzak izandako eboluzioa aztertzen da. Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020. eta 2021. urteen bitartean aldakuntza handiena izandako 10 udalerriak zerrendatzen dira.

### 1.5.3.1 Ontziak



Ontzi arinak zatikiaren kasuan, jarraian erakutsitako taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Forua dagoela. Bertan, ontzi arinen bilketa % 8,14 hazi da.

*13. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak ontzi arinen kasuan (kg/biz/urte).*

| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Forua | %8,14 | 18,85 | 17,43 |
| Portugalete | %8,05 | 17,86 | 16,53 |
| Santurtzi | %6,27 | 15,24 | 14,34 |
| Mundaka | %5,66 | 20,66 | 19,56 |
| Meñaka | %4,81 | 17,99 | 17,16 |
| Maruri-jatabe | %4,62 | 26,89 | 25,7 |
| Basauri | %4,26 | 16,44 | 15,77 |
| Izurtza | %3,88 | 32,52 | 31,31 |
| Karrantza harana | %3,50 | 15,5 | 14,98 |
| Amorebieta-Etxano | %3,10 | 18,39 | 17,83 |

### 1.5.3.2 Papera eta kartoia



Papera eta kartoia zatikiaren kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Zamudio dagoela. Bertan, papera eta kartoiaren bilketa % 73,06 hazi da.

*14. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak papera eta kartoiaren kasuan (kg/biz/urte).*

| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Zamudio | %73,06 | 91,94 | 53,12 |
| Berriatua | %36,36 | 65,92 | 48,34 |
| Loiu | %28,41 | 68,22 | 53,12 |
| Mendexa | %25,03 | 60,44 | 48,34 |
| Mungia | %23,73 | 28,06 | 22,68 |
| Murueta | %21,65 | 20,7 | 17,02 |
| Arantzazu | %10,56 | 48,34 | 43,73 |
| Areatza | %10,55 | 48,34 | 43,73 |
| Zeanuri | %10,55 | 48,34 | 43,73 |
| Lemoa | %10,55 | 48,34 | 43,73 |

Aipatu behar da, tasa bera duten udalerrien kasuan papera eta kartoiaren bilketaren banaketa homogeneoa egin dela beren eskualdearen barruan duten biztanleria kontuan hartuta, udalerri bakoitzaren pisaketaren daturik ez daukagulako.

### 1.5.3.3 Beira



Beira zatikiaren kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Murueta dagoela. Bertan, beiraren bilketa % 151,90 hazi da.

*15. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak beiraren kasuan (kg/biz/urte).*

| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Murueta | %151,90 | 80,83 | 32,09 |
| Lanestosa | %115,19 | 16,36 | 7,6 |
| Sopuerta | %93,17 | 27,08 | 14,02 |
| Garay | %87,89 | 48 | 25,54 |
| Bedia | %85,16 | 25,65 | 13,85 |
| Barrika | %74,62 | 60,27 | 34,52 |
| Larrabetzu | %73,00 | 49,71 | 28,73 |
| Kortezubi | %59,09 | 59,71 | 37,53 |
| Galdames | %58,56 | 24,64 | 15,54 |
| Karrantza harana | %52,37 | 25,11 | 16,48 |

### 1.5.3.4 Organikoa/Biohondakinak



Biohondakinen kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Zamudio dagoela. Bertan, biohondakinen bilketa % 352,22 hazi da.

*16. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak biohondakinen kasuan (kg/biz/urte).*

| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Zamudio | %352,22 | 38,7 | 8,56 |
| Sopela | %169,88 | 12,52 | 4,64 |
| Durango | %139,05 | 10,87 | 4,55 |
| Urduliz | %95,36 | 10,66 | 5,45 |
| Ugao-Miraballes | %73,39 | 11,13 | 6,42 |
| Sestao | %72,36 | 13,3 | 7,72 |
| Arrigorriaga | %64,42 | 10,55 | 6,42 |
| Arrankudiaga | %56,55 | 10,05 | 6,42 |
| Berango | %56,51 | 6,1 | 3,9 |
| Mundaka | %54,86 | 4,55 | 2,94 |

### 1.5.3.5 Tamaina handikoak

Tamaina handiko hondakinen kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Barrika dagoela. Bertan, tamaina handiko hondakinen bilketa % 135,8 hazi da.

*17. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak tamaina handiko hondakinen kasuan (kg/biz/urte).*



| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Barrika | %135,84 | 11,97 | 5,08 |
| Zamudio | %107,07 | 16,29 | 7,87 |
| Urduliz | %81,73 | 4,61 | 2,54 |
| Bakio | %79,41 | 9,32 | 5,19 |
| Zeberio | %68,50 | 19,07 | 11,32 |
| Balmaseda | %54,26 | 12,29 | 7,96 |
| Ugao-Miraballes | %44,36 | 16,34 | 11,32 |
| Ortuella | %42,65 | 11,4 | 7,99 |
| Abanto-Zierbena | %41,73 | 11,33 | 7,99 |
| Sestao | %39,16 | 11,12 | 7,99 |

Aipatu behar da, tasa bera duten udalerrien kasuan tamaina handiko hondakinen bilketaren banaketa homogeneoa egin dela beren eskualdearen barruan duten biztanleria kontuan hartuta, udalerri bakoitzaren pisaketaren daturik ez daukagulako.

### 1.5.3.6 Berrerabilera



Berrerabiltzeko hondakinen kasuan, jarraian dagoen taulan ikus dezakegu udalerrien zerrendaren buruan Sukarrieta dagoela. Bertan, berrerabiltzeko hondakinen bilketa % 455,42 hazi da. Hori gertatu da, hain zuzen ere, 2020ko amaierara arte Sukarrietak edukiontzi züririk ez zuelako. Beraz, hazkunde handi hori hortik dator.

*18. taula. Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak berrerabiltzeko hondakinen kasuan (kg/biz/urte).*

| Udalerria | Hazkundea 20-21 (%) | Bilketa 2021 | Bilketa 2020 |
|---|---|---|---|
| Sukarrieta | %455,42 | 10,4 | 1,87 |
| Izurtza | %64,38 | 15,79 | 9,61 |
| Mañaria | %53,59 | 5,63 | 3,66 |
| Ugao-Miraballes | %39,86 | 4,98 | 3,56 |
| Atxondo | %36,40 | 3,35 | 2,45 |
| Garay | %32,01 | 7,99 | 6,06 |
| Karrantza harana | %23,70 | 1,76 | 1,42 |
| Mungia | %23,54 | 4,26 | 3,45 |
| Nabarniz | %23,48 | 4,87 | 3,94 |
| Arrigorriaga | %19,14 | 4,22 | 3,54 |

# 1.6.
# Laburpen orokorra

## Guztira sortutakoa: 642.966 tona

| BIOHONDAKINA | PAPERA-KARTOIA | BEIRA | EKH | TAMAINA HANDIKOAK | ONTZIAK | DENETARIKOAK | MASAKO BILKETA | BESTE BATZUK (ontziak ez diren metalak eta plastikoak eta hondakin arriskutsuak) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| % 2,74 | % 13,14 | % 4,32 | % 14,60 | % 3,12 | % 3,35 | % 5,28 | % 52,88 | % 0,57 |
| 16.603 | 84.632 | 27.782 | 93.857 | 16.649 | 21.531 | 33.720 | 340.019 | 3.648 |

- BIOHONDAKINA → Bizkaiko Konpostegia
- PAPERA-KARTOIA, BEIRA, EKH → Kudeatzaileetara
- TAMAINA HANDIKOAK → Berziklatu
- ONTZIAK → BZB
- DENETARIKOAK → Ehun-gaiak: Koopera; Egurra: Berziklatu; Olioa: kudeatzailera; Gainerakoak: Zabortegia
- MASAKO BILKETA → TMB → Zabalgarbi; Berreskuratzea; Artigaseko zabortegia
- BESTE BATZUK → Zabalgarbi; Artigaseko zabortegia

## Hondakinen xedea: 642.966 tona

### Tratamendua: 600.589 t

